

Xaguxatar bidearen inguruan informazio gehiago jaso edota Xaguxatar jolasa osatzeko esku-orria eskuratu nahi baduzu, honako guneeetan topatuko duzu:




XAGUXATAR

bidea



GIZAKIAK ZIZELKATURIKO NATURA BIZIARI JARRAIKA



Azpeitiko herriak barneratzen duen natura-ondarea oso aberatsa da. Xaguxatar bideak gizakiarekin izandako lotura bertatik bertara ezagutzeko aukera eskaintzen dizu eta Izarraitz Babes Bereziko Eremuaren magalean kokatuta dago.

Izarraitzek aparteko aipamena merezi du, biodibertsitate handiko eremua baita. Interes bereziko habitat eta espezieak ditugu bertan eta ibilbide honekin, kobazuloetan zein zuhaitz zaharren barrunbeetan bizi diren xaguxatarrak benetako izarrak bihurtu nahi izan ditugu.



Hala, ezinbestean babestu beharreko ingurua gertatzen denez, Europa mailako Natura 2000 sarean txertaturiko Kontserbazio Bereziko Eremua da Izarraitz. 1593 hektareako azaleran, baso, larre eta guneharritsuak aurkezten dituen gunea da eta, babes horri esker, bertako ekosistemen eta bizidunen biziraupena ziurtatu nahi da.



Profila



6,5 KM
2:00'
Ibilbide zirkularra

Xaguxatar web

Wikiloc



info +

XAGUXATAR: www.azpeitia.eus/xaguxatar/

Ipar belarrihandia

Plecotus auritus



Ferra-saguzar handia

Rhinolophus ferrumequinum



Geoffroy saguzarra

Myotis emarginatus



Hego belarrihandia

Plecotus austriacus



0 Ekoetxea / Xaguxatar parkea:

Xaguxatar bidearen aurkezpena eta haren ezaugarri orokorrak deskribatuta dituzu.

1 Loiolako zuhaitzak, mundu zabaleko espezieak bertatik bertara:

zuhaitzen aniztasuna, zuhaitz zaharren garrantzia eta bertako bizidunak ezagutzeko dituzu.

2 Izarraitzeko Atea, mendiaren oinetan bildutako uzta:

garai bakoitzeko barazkietan, urtarotara egokitzeko zuhaitzen estrategietan, intsektuen garrantzian eta sagastien presentzian sakontzeko aukera duzu.

3 Otzaka, Izarraitzeko aniztasunaren behatokia:

Europa mailako Natura 2000 sarean txertaturiko Kontserbazio Bereziko Eremuko paisaia eta ekosistemak nabarmenduko dituzu.

6 Ikuspegi panoramikoa.

Azpeitiko ikuspegi zoragarriaz disfrutatzeko aukera izango duzu.

4 Izarraitzeko baserriak, belaunaldi berriak:

baserriaren deskribapena burutu, egungo egoeraz hausnartu eta ustiapen ekologikoak ikusteko parada izango duzu.

5 Urola ibaia, ubidea baino askoz gehiago:

erreka osasuntsuaren ezaugarriak, Urola ibaiaren egoera eta bertako bizidunak ezagutzeko dituzu.

6 Azoka Plaza, bertako eta garaikoaren erakusleihoa:

iraunkortasunaren inguruko azalpenarekin batera, bertako ekoizpenak dakartzan onuren berri izango duzu.

IBILBIDE OSAGARRIA

Igarako errota

Uraren indarra baliabide



Amuko zubia

Azpeitiaren bilakaeraren lekuko pribilegiatua



Urolako tren

Bailararen lokarri

